

Asiako toponimia

Asiako toponimia nagusia bildu da arau honetan. Badira, hala ere, leku-izen garrantzitsu ugari Asian zerrenda honetan agertzen ez direnak. Grafia-arazorik ez dagoenean, hau da, leku-izena modu berean idazten baldin bada ingelesez, frantsesez eta gaztelaniaz, ez da zerrendan sartu, leku-izen nagusi eta ezagun batzuk izan ezik. Hizkuntzatik hizkuntzara desberdin idazten direnak (itzultzen direlako, grafia-aldaerak dituztelako edo gaztelaniaz edo frantsesez exonimoak direlako eta, horrenbestez, euskaraz erabili beharreko grafia ezartzeko orduan zalantza egin litekeelako) baino ez dira zerrendaratu, salbuespen gutxi batzuk kenduta. Beraz, ulertu behar da gainerakoak, grafia-arazorik ez dutenak, nazioartean finkatua dagoen grafiarekin idaztekoak direla euskaraz ere.

Bestalde, adierazi beharra dago ezen, arauaren izena Asiako toponimia bada ere, benetan ez dela Asia osoa bildu arau honetan. Bi eremu garrantzitsu falta dira:

1- Batetik, Asiako iparralde osoa, Siberia alegia. Siberia makroeskualdea Errusia estatuaren barnean dago, eta Europako toponimiaren arauetan ageri da ([157. araua: Europako hiriak](#), [159. araua: Europako toponimia fisikoa](#)), estatu-mugak erabili baitira toponimia lantzeko, eta ez irizpide geografiko hutsak, toponimiak lotura estua baitu estatuetakoz hizkuntza ofizialekin.

2- Bestetik, arabieraren eremua: Arabiar penintsula eta Ekialde Hurbila. Arabieraren eremua osorik landu zen, eta berariazko arau batean eman ([164. araua: Ekialde Hurbileko eta Ipar Afrikako toponimia](#)).

Kontinente erraldoia da Asia, hala hedaduraz nola populazioz, eta hala hizkuntzaz nola alfabetoz. Eta erraldoitasun horrek konplexutasuna dakar toponimia aztertzeko orduan, batez ere gureaz bestelako alfabetoak daudenean transkripzioak egin behar direlako. Sarrera honen ondoren dagoen eranskinean, ohar orokor batzuk ematen dira estatu bakoitzaren hizkuntza ofizialei buruz eta transkripzioetarako baliatu diren irizpide nagusiei buruz, ezinbestean aski orokorrak

izanik ere (arau honen helburua ez baita transkripzioak lantzea) balio izango dutenak gaia kokatzeko eta erreferentzia batzuk izateko. Arau honetan ageri ez diren beste leku-izen batzuk euskaraz nola idatzi jakiteko lagungarri gertatuko dira.

331 leku-izen bildu dira arau honetara. Haietariko 54, dena den, lehendik araututa zeuden —38. arauan (munduko estatuak eta hiriburuak), 59. arauan (Ibaiak), 60. arauan (Aintzirak) edo 70. arauan (Mundu zabaleko uharte nagusiak)—, baina arau honetara ere ekarri dira, informazio osagarria, hala nola ingelesezko formak, ematearren. Oro har, bi motatako leku-izenak dira:

1-Toponimo garrantzitsua edo oso ezaguna, nahiz eta grafia-arazorik ez izan. Adibidez, **Gobi(ko) basamortua**, **Hiroshima**, **Mandalay**, **Aral itsasoa**...

2- Gure inguruko erdara nagusietan (gaztelania, frantsesa, ingelesa) berdin idazten ez direnak edo hizkuntza bakoitzera itzultzen direnak eta, ondorioz, grafiazalantza eragin dezaketenak. Adibidez, **Samarkanda** (es Samarcanda/Samarkanda, fr Samarcande, en Samarkand), **Jammu eta Kaxmir** (es Jammu y Cachemira, fr Jammu-et-Cachemire, en Jammu and Kashmir), **Ekialdeko Ghat mendiak** (es Ghats orientales, fr Ghâts orientaux, en Eastern Ghats), **Malakako itsasartera** (es estrecho de Malaca, fr détroit de Malacca, en Strait of Malacca), **Barne Mongoliako Eskualde Autonomoa** (es Región Autónoma de Mongolia Interior, fr Région autonome de Mongolie-Intérieure, en Inner Mongolia Autonomous Region)...

Izendapen bikoitzak

Gutxi batzuetan, bi izendapen ageri dira euskarazko zerrendan. Bi izendapenak barra etzanez bereizita daude, <A/B>, eta biak maila berean onartzen dira. Adibidez:

Shandong penintsula / Jiaodong penintsula

Sri Pada / Adamen tontorra

Yangzi [Yangzi ibaia] / Ibai Urdina

Beste batzuetan, bigarren izendapenean zehaztapen bat ageri da, adierazteko izendapen bat tradizioduna dela eta bestea berria edo ofiziala dela, edo esparru murriztagoko izendapena dela. Adibidez:

Ogasawara uharteak / lehen: Bonin uharteak

Ho Chi Minh Hiria / 1975 arte: Saigon

Kalkuta / izen ofiziala 2001etik: Kolkata

Zerrendak

Leku-izen bakoitzean, euskarazko izenaz gainera, gaztelaniazko izena, frantsesezko izena eta ingelesezko izena ere ematen dira. Jatorrizko izena ere ematen da, tokian tokiko hizkuntzan eta alfabetoan. Beste alfabeto bateko forma ematen denean, askotan transkripzioa ere erantsi da letra etzanez.

Euskaltzaindiak 2012ko ekainaren 29an, Bilbon, eta uztailaren 20an, Gasteizen, onartua

OHARRA: Euskaltzaindiak, 2009ko otsailaren 27an, 156. araua (*Alfabeto zirilikoz idatzitako izenak euskarara aldatzeko transkripzio-sistema*) onartu zuen. Lehendik araututa zeuden Asiako bost leku-izenek ez zuten betetzen arau berria. Ondorioz, bost leku-izen horiek ez zetozen bat gerora inguruko beste leku-izenetarako arautu den grafiaren aldean. Orain, Asiako leku-izenen araua prestatu ondoren, bost leku-izen horien grafia egokitzea erabaki du Euskaltzaindiak, gainerako leku-izenetarako onartutako arauzko grafiarekin bat etorrarazteko. Hauek dira:

Lehengo grafia	Erabakitako grafia berria (156. araura egokitua)	Oharra
Ashgabat (38. araua)	Asgabat	Errusieratik transkribaturik, Axkhabat dagokio. Gaur egun, hala ere, turkmenera latindar alfabetoz idazten da, turkiera bezala. Berez, Aşgabat legokioke, baina, 162. arauak < ş > letrari buruz dioena aplikaturik, Asgabat hobetsi da.
Tashkent (38. araua)	Taxkent	
Bishkek (38. araua)	Bixkek	
Dushanbe (38. araua)	Duxanbe	
Balkash [Balkash aintzira] (60. araua)	Balkhax [Balkhax aintzira]	

ERANSKINA: DATUAK ETA IRIZPIDEAK

Eranskin honetan, Asiako estatu-hizkuntza nagusiei buruzko jakingarri batzuk ematen dira, eta Asiako estatu horietako leku-izenak euskaraz adierazteko orduan kontuan hartu behar diren irizpide nagusiak adierazten. Azalpena laburra eta aski eskematikoa da, xehetasunetan sartu gabe, helburua ez baita informazio entziklopedikoa ematea, baizik eta gida azkar moduko bat eskaintzea, hizkuntza horietako batekin topo egiten duen idazle euskaldunari erreferentzia batzuk ematearren.

Asiako hizkuntza eta alfabeto ofizialen eta transkripzioen gaia konplexua da, eta aldakorra. Har beza kontuan irakurleak eranskin honetan ageri den informazioa 2012ko egoerari dagokiola.

1. Afganistango hizkuntzak
2. Bengalera
3. Birmaniera
4. Filipinera
5. Indiako hizkuntzak
6. Indonesiera
7. Japoniera
8. Kazakhera
9. Khmerera
10. Kirgizera
11. Koreera
12. Laosera
13. Malaysiera
14. Mongoliera
15. Nepalera
16. Pakistango hizkuntzak
17. Persiera
18. Sri Lankako hizkuntzak
19. Tajikera
20. Thainera
21. Turkmenera
22. Txinera
23. Uzbekera
24. Vietnamera

1 AFGANISTANGO HIZKUNTZAK

1.1 Afganistango hizkuntzak eta alfabetoak

Afganistango hizkuntza ofizialak paxtuera eta daria dira (daria: Afganistango persiera), eta daria da estatu barneko *lingua franca*.

1.2 Euskaraz nola jokatu?

Afganistan britainiar kolonia izan zen, eta britainiarren eragina izan zuen 1837az geroztik; hala ere, 1919an independentzia lortu zuen, eta ingelesak ez du geroztik Pakistanen beste eraginik izan.

Ingelesaren bidez zabaldu dira Afganistango leku-izenak mundu osora, baina, hizkuntza nagusia persiera denez, persieratik transkribatzea ere ohikoa da. Horregatik, joerak, nazioartean, ez daude oso definituta. Persieratik transkribatzea izan daiteke irizpiderik zuhurrena, batez ere erabilera-maiztasun txikiko leku-izenetarako (ikus eranskin honetako **Persiera** atala).

2. BENGALERA

Bangladesh-eko hizkuntza ofiziala bengalera da. Bengalerak bere alfabetoa du (abugida bat da). Bengalera erromanizatzeko, transliterazio-eta transkripzio-sistema bat baino gehiago dago, eta ez dago erromanizazio-sistema ofizialik. Bangladesh-eko leku-izenak euskarazko testuetan erabiltzean, komeni da nazioarteko joera nagusiari atxikitzea: ingelesaren bidez zabaldu dira hango leku-izenak mundu osora.

3. BIRMANIERA

3.1 Birmanieraren idazkera eta erromanizazioa

Birmaniera hizkuntza tonala da, eta gehienbat hitz silababakarrez osatua. Berezko alfabetoa¹ du, X. mendean sortua; 33 letra ditu, silaba baten hasierako kontsonantea adierazteko, eta lau diakritiko. Ezkerretik eskuinera idazten da, eta ez du behar hitzen arteko zuriunerik, baina, idazkera modernoan, perpaus bakoitzaren amaieran zuriunea jarri ohi da, irakurgarritasuna hobetzearren. Tonua eta bokal-aldaketak adierazteko, diakritikoak baliatzen ditu, letraren ezkerrean, eskuinean, gainean edo azpian ezarriak.

Sistema bat baino gehiago dago birmaniera erromanizatzeko: Erresuma Batuko eta Estatu Batuetako BGN eta PCGN erakundeek 1970ean transkripzio-sistema bat onartu zuten; berez, ingeles agintari kolonialek 1907an egindako *Tables for the Transliteration of Burmese into English* (1908an argitaratua) sistemaren bertsio hobetu bat da. Nazio Batuek ez dute sistema ofizialik onartu, ezta Birmaniak berak ere. Dena den, Birmaniako gobernuaren Birmaniako Hizkuntza Batzordeak (MLC, Myanmar Language Commission) birmaniera-ingelesa hiztegi bat

¹ Ez da, adiera hertsian, alfabeto bat, alfasilabario bat baizik (abugida bat): kontsonante-bokal sekuentzia bakoitza unitate gisa idazten da, karaktere bat da. Unitatearen oinarria kontsonantea da, eta bokala bigarren mailakoa da. Kontsonante bakoitzak bokal atxiki bat du, eta zeinu diakritikoak erabiltzen dira bokal hori ez eta beste bat dagokiola edo bokalik ez dagokiola adierazteko.

egin zuen, eta han transkripzio-sistema bat (MLC sistema deritzona) erabili zuen Indiako pali hizkuntzaren transkripzio-sisteman oinarritua. Estatu Batuetako Kongresuaren Liburutegiak ere badu berea (ALA-LC sistema). ALA-LC sistemak eta MLC sistemak antzekotasun ugari dituzte; biak transliterazio-sistemak dira. BGN/PCGN, berriz, transkripzio-sistema da.

3.2 Euskaraz nola jokatu?

Birmanierazko leku-izenak euskarazko ohiko testuetan erabiltzeko, oro har, tradizio anglofonoko BGN/PCGN transkripzio-sistema erabil daiteke, hori baita zabalduena gure kultura-ingurunean.

4. FILIPINERA

Filipinera (tagalo hizkuntzaren aldaera estandarizatua) latindar alfabetoz idazten da; 28 letra ditu, eta ez du diakritikorik erabiltzen. Ingelesa ere hizkuntza ofiziala da. Beraz, Filipinetako leku-izenak filipineraz eta ingelesez bezala idaztekoak dira euskaraz, salbuespenak salbuespen.

5. INDIAKO HIZKUNTZAK

5.1 Indiako hizkuntzak eta alfabetoak

Indiako hizkuntza ofizialak hindia eta ingelesa dira. Hala ere, 22 hizkuntza nazional daude Konstituzioan jasoak, eta hizkuntza horiek ofizialak dira zein bere lurraldean (assamera, bengalera, bodoera, dograera/dogri, gujaratera, hindi, kannada, kaxmirera, konkanera, maithili, malabarera, manipurera, marathera, nepalera, oriya, punjabera, sanskrito, santalera, sindhia, tamiler, telugua, urdua). Hizkuntza horietako batzuek, gainera, oso hiztun-kopuru handiak dituzte (bengalerak 83 milioi, gujaraterak 46 milioi, kannadak 38 milioi, maratherak 72 milioi, tamilerak 61 milioi, teluguak 74 milioi, urduak 52 milioi...). Horretaz gainera, badira hizkuntza ugari, dozenatik gora, ofizialak ez direnak baina 5 milioi hiztunetik gora dituztenak. Alfabetoak ere ugari dira. Adibidez, hizkuntza nagusia, hindia (हिन्दी), devanagari alfabetoz idazten da. Devanagaria erromanizatzeko zenbait metodo daude, baina Indiako gobernuak erromanizazio-sistema ofizial bat erabiltzen du, Hunterren transliterazioa (*Hunterian transliteration*) delakoa, eta sistema hori erabiltzen da leku-izenetan ere. Horretaz gainera, kontuan hartzekoa da India denbora luzean ingeles kolonia izan zela, eta ingelesak arrasto nabarmena utzi zuela toponimian; baita, askoz maila apalagoan bada ere, portugesak ere, kostaldean batez ere.

5.2 Euskaraz nola jokatu?

Indiako leku-izenak euskarazko testuetan erabiltzean, komeni da nazioarteko joera nagusiari atxikitzea: ingelesaren bidez zabaldu dira Indiako leku-izenak mundu osora. Diakritikoei dagokienez, idazkera jaso zainduan edo testu espezializatuetan, beharrezkoa gerta daiteke diakritikoak erabiltzea, baina maila apalagoko testuetan (komunikabideak, eskola-liburuak, literatura...) onargarria da ez idaztea. Arau honetako zerrendan, euskarazko forman ez dira sartu diakritikoak; adibidez, *Mumbai* ageri da. Jatorrizko izenen zutabearen, berriz, sartu dira;

adibidez, *Mumbāī* ageri da. Hala ere, nahi izanez gero, zilegi da noski euskaraz ere diakritikoak erabiltzea.

6. INDONESIA

Indonesiera Malaysieraren aldaera estandarizatu bat da; latindar alfabetoz idazten da, eta ez du diakritikorik erabiltzen. Independentziaz geroztik (1947), zenbait grafia-aldaketa gertatu dira, eta gaur egungo ortografia urundu egin da ortografia zaharretik, zeina nederlanderaren ortografian oinarrituta baitzegoen (*grafia zaharra* → *grafia berria*: *oe* → *u*; *tj* → *c*; *dj* → *j*; *j* → *y*; *nj* → *ny*; *sj* → *sy*; *ch* → *kh*). Horregatik, oraindik leku-izen batzuetan grafia-aldakerak ikusten dira iturrien arabera (adibidez, *Yogyakarta* grafia berria eta *Jogjakarta* grafia koloniala).

Indonesierazko leku-izenak, oro har, indonesieraz bezala idaztekoak dira euskaraz; badira, hala ere, zenbait leku-izen grafia kolonialarekin hedatu direnak eta gure kultura-ingurunean iraun dutenak; halakoak salbuespentzat hartu behar dira.

7. JAPONIERA

7.1 Japonieraren idazkera eta erromanizazioa

Japonierak bi idazkera klasiko ditu, eta ez du alfabetorik. Lehenak *kanji* du izena (漢字), eta logogramak erabiltzen ditu, karaktere txinatarretatik eratorriak. Karaktere bakoitzak —grafema bakoitzak— hitz bat adierazten du. Bigarrenak *kana* du izena (かな), eta bi aldaera ditu: *hiragana* (ひらがな) eta *katakana* (カタカナ). *Kana* idazkera silabikoa da; hau da, grafema bakoitzak silaba bat adierazten du. Eta hirurak erabiltzen dira gaur egun. Oinarria *kanji* da; *hiragana* aldaera *kanji* osatzeko eta gramatika-hitzetarako erabiltzen da. Eta *katakana* kanpoko hitzetarako, maileguetarako eta hitz teknikoetarako baliatzen da, baita nabarmentzeko ere (gure alfabetoan letra etzana erabiltzen den moduan). Azkenik, akronimoak (siglak, laburdurak) idazteko, latindar alfabetoa erabiltzen da.

Hiru idazkera horietaz gainera, japonieraren erromanizazioa ere (japoniera latindar alfabetoz idatzia) erabiltzen da; adibidez, ordenagailuz idazteko, besteak beste. Japonieraren erromanizazioari *rōmaji* deritzo. Eskoletan, *rōmaji* ere ikasten da. Beraz, ia japoniar guztiek dakite *rōmajiz* idazten eta irakurtzen.

Baina japoniera erromanizatzeko —hau da, latindar alfabetoaren bidez adierazteko— sistema bat baino gehiago dago; alegia, ez dago *rōmaji* bakarra. Nagusiki, hiru sistema erabiltzen dira:

- **Hepburn** erromanizazioa. XIX. mendean sortu zuen James Curtis Hepburn estatubatuar misiolariak. Ingeles fonologiari jarraitzen dio kontsonanteei dagokienez, baina latin-hizkuntzen (italieraren) bokal-sistemarekin. Eta sistema hau da mundu osoan, nabarmen eta alde handiz, japoniera erromanizatzeko erabiliena, ofiziala ez bada ere. Baita Japonian berean ere. Bi aldaera ditu: Hepburn tradizionala eta Hepburn berritua, 1957an argitaratua. Gaur egun, Hepburn berritua da nagusi.

Hepburn berrituak makron diakritikoa (̄) erabiltzen du bokal luzeak adierazteko, eta apostrofoa ere (') erabiltzen da bestela erraz nahasiko ziren fonemak bereizteko. Adibideak:

Tōkyō (Japoniako hiriburua).

Shin'ichi (japoniar ponte-izen ohiko bat; gizonezko-izena). Apostrofoak adierazten du ahoskera *shin-i-chi* dela (hiragana: しんいち) eta ez dela *shi-ni-chi* (hiragana: しにち).

- **Nihon-shiki** erromanizazioa, 1937an sortua Japonian. Japonieraren silabakako idazkerari jarraitzen dio, eta ez du kontuan hartzen ahoskera. Oso erregularra da. Nazioartean estandarizatuta dago: ISO 3602 hertsia. Hala ere, oso gutxi erabiltzen da, bai Japonian, bai Japoniatik kanpo.

- **Kunrei-shiki** erromanizazioa. Nihon-shiki sistemaren aldaera bat da. Japoniako Gobernuak estandarizatu eta ofizialdu zuen 1954an, eta nazioartean ere estandarizatua dago: ISO 3602. Gutxi erabiltzen da.

7.2 Euskaraz nola jokatu?

Japonierazko izenak euskarazko testuetan erabiltzean, komeni da nazioarteko joera nagusiarri atxikitzea; alegia, Hepburn berritua deritzon erromanizazio-sistema erabiltzea. Diakritikoei dagokienez, idazkera jaso zainduan edo testu espezializatuetan, beharrezkoa gerta daiteke diakritikoak erabiltzea, baina maila apalagoko testuetan (komunikabideak, eskola-liburuak, literatura...) onargarria eta ohikoa da ez idaztea. Arau honetako zerrendan, euskarazko forman ez dira sartu diakritikoak; adibidez, *Hokkaido* ageri da. Jatorrizko izenen zutabeetan, berriz, sartu dira; adibidez, *Hokkaidō* ageri da. Nolanahi ere, nahi izanez gero, zilegi da noski euskaraz ere diakritikoak erabiltzea.

8. KAZAKHERA

8.1 Kazakheraren idazkera eta erromanizazioa

Kazakhera hizkuntza turkikoa da, eta 10 milioi hiztun inguru ditu. 1940. urteaz geroztik, alfabeto zirilikoz idazten da Kazakhstanen. Historikoki, arabiar alfabetoa eta latindar alfabetoa ere (1927tik 1940ra) erabili dira kazakhera idazteko. 2006an, latindar alfabetora aldatzeko saio bat egin zuen gobernuak, baina, kostu ekonomikoa eta alfabeto berrira egokitze egin beharreko ahalegina aztertuta (kontuan izanik azken 70 urteetan zirilikoz idatzi dela khazakhera), 2007an atzera egin zuen. Kazakhera Kazakhstango hizkuntza nazionala eta lehen hizkuntza ofiziala da; errusiera ere Kazakhstango hizkuntza ofiziala da, bigarren hizkuntza ofiziala.

Kazakheraren alfabeto zirilikoak 42 letra ditu; haietarik 33 errusierarenak berak dira, eta beste 9 ditu kazakheraren berezko hotsetarako: **Ә, Ғ, Қ, Ҳ, Ө, Ұ, Ү, Һ, І**. Letretariko batzuk (**В, Ё, Ф, Х, Һ, Ц, Ч, Щ, Ъ, Ь** eta **Ә**) ez dira erabiltzen kazakherazko jatorrizko hitzetan, baina errusieratik —edo beste hizkuntza batzuetatik, errusiera garraio-hizkuntza dela— mailegatutako hitzetan erabiltzen dira).

Kazakhera erromanizatzeko, hainbat sistema daude (BGN/PCGN, 1979; ALA-LC, 1997; ISO 9, 1995; Allworth, 1971; KNAB, 1998;...). Nazio Batuek, oraingoz, ez dute erromanizazio-sistema

ofizialik onartu. Bestalde, Estatu Burujabeen Erkidegoak GOST izeneko estandarrak erabiltzen ditu, eta haietako bat da GOST 7.79-2000 estandarra, 2002an onartua, alfabeto ziriliko erromanizatzeko. GOST 7.79 estandarrak bi taula ditu: A sistema unibokoa da (grafema ziriliko bakoitzari grafema latindar bat dagokio), eta zeinu diakritikoak erabiltzen ditu; ISO 9:1995 sistema bezalakoa da, berdin-berdina. B sistema, berriz, ez da unibokoa (grafema ziriliko bakoitzari grafema latindar bat edo gehiago dagozkio) eta ez du diakritikorik erabiltzen.

Kazakhstanek onartzen ditu GOST estandarrak, baina, hala ere, estandar hori ere ez da erabiliena. 2004an Kazakhstango Berri Agentziak (Kazinform: www.inform.kz), erromanizazio-sistema bat ezarri zuen atzerrian bizi diren kazakhei bertako berriak irakurtzen laguntzeko: *QazAqparat* erromanizazioa. Turkieraren latindar alfabetoan oinarrituta dago, eta dagoeneko *de facto* estandar bihurtu da Interneten kazakherazko testu erromanizatuetan. Kazakhstango Zientzia Akademiako Linguistika Institutuaren ustez, sistema horrek du aukerarik onena kazakh guztiek onartzeko moduko latindar alfabeto estandar bilakatzeko².

8.2 Euskaraz nola jokatu?

Kontuan izanik bi hizkuntza ofizial daudela (kazakhera eta errusiera), eta kontuan izanik kazakheraren erromanizazio-sistematik erabilienak ez duela turkierak baino arazo gehiago sortzen erabiltzeko, jokabide bikoitza erabil liteke: errusieratik transkribatzea Euskaltzaindiaren 156. araua aplikatuz, edo *QazApparat* erromanizazioa erabiltzea. Lan espezializatuetan, bestelako transliterazio-sistemak erabil daitezke (ISO 9, adibidez). Jokabide bikoitz hori aplikatu da arau honetako zerrendan.

Hau da kazakhera zirilikoaren *QazApparat* erromanizazioa:

Alfabeto ziriliko	QazAqparat erromanizazioa	IPA
А а	A a	[ɑ]
Ә ә	Ä ä	[æ]
Б б	B b	[b]
В в	V v	[v]
Г г	G g	[g]
Ғ ғ	Ğ ğ	[ɣ]
Д д	D d	[d]
Е е	E e	[je]
Ё ё	Yo yo	[jo]
Ж ж	J j	[ʒ]
З з	Z z	[z]
И и	İ i	[wɨ], [ɨ]
Й й	Y y	[j]
К к	K k	[k]
Қ қ	Q q	[q]
Л л	L l	[l]
М м	M m	[m]

² Iturria: "Kazakh Roman alphabet perspectives", Meeting of UNGEGN Working Group on Romanization Systems, 2006-10-9, Tallinn (http://www.eki.ee/wgrs/wgr06_9.htm).

Alfabeto zirilikoa	QazAqparat erromanizazioa	IPA
Н н	N n	[n]
Ң ң	Ñ ñ	[ŋ]
О о	O o	[o]
Ө ө	Ö ö	[ø]
П п	P p	[p]
Р р	R r	[r]
С с	S s	[s]
Т т	T t	[t]
У у	W w	[w], [ɯw], [ɯw]
Ү ү	U u	[ɯ]
Ү ү	Ü ü	[ʉ]
Ф ф	F f	[f]
Х х	X x	[x, χ]
Һ һ	H h	[h]
Ц ц	C c	[ts]
Ч ч	Ç ç	[tʃ]
Ш ш	Ş ş	[ʃ]
Щ щ	Şş şş	[ʃʃ], [ʃ:]
Ъ ъ	(")	--
Ы ы	I i	[ɯ]
І і	I i	[ɪ]
Ь ь	(')	--
Э э	Ee (Éé)	[e]
Ю ю	Yu yu	[jɯw], [jɯw]
Я я	Ya ya	[jɑ]

Parentesi arteko sinboloek bi aldetarako transliterazioetarako baino ez dira behar.

9. KHMERERA

9.1 Khmereraren idazkera eta erromanizazioa

Khmererak berezko alfabetoa³ du, VII. mendean sortua, munduko luzeena: 35 kontsonante, 10 digrafo, 16 bokal diakritiko (kontsonanteei atxikitako berezko bokalak aldatzeko), bokaletarako 9 zeinu diakritiko, 16 bokal aske, eta beste diakritiko batzuk. Khmerera latindar alfabetoaren bidez idazteko sistema bat baino gehiago dago: Nazio Batuen Erakundeak sistema bat onetsi zuen 1972an, Estatu Batuetako eta Erresuma Batuko BGN eta PCGN erakundeek urte berean ezarri zuten sisteman oinarritua. Eta BGN/PCGN sistema, bestalde, Service Géographique Khmère erakundeak 1959an argitaratu zuen sistemaren aldaera bat da. Kanbodiako Geografia Departamentuak, bestalde, Nazio Batuen sistemaren beste aldaera bat erabiltzen du (1995ean argitaratua eta 1997an aldatua). Sistema guztiek digrafo eta diakritiko ugari erabiltzen dituzte.

³ Ez da, adiera hertsian, alfabeto bat, alfasilabario bat baizik (abugida bat): kontsonante-bokal sekuentzia bakoitza unitate gisa idazten da, karaktere bat da. Unitatearen oinarria kontsonantea da, eta bokala bigarren mailakoa da. Kontsonante bakoitzak bokal atxiki bat du, eta zeinu diakritikoak erabiltzen dira bokal hori ez eta beste bat dagokiola edo bokalik ez dagokiola adierazteko.

9.2 Euskaraz nola jokatu?

Khmererazko leku-izenak euskarazko testuetan erabiltzeko, oro har, komeni da erromanizazio-sistema nagusietako bati atxikitzea, dela Nazio Batuek, dela BGN/PCGN erakundeena. Diakritikoei dagokienez, idazkera jaso zainduan komeni da diakritikoak erabiltzea, baina maila apalagoko testuetan onargarria da diakritikoak ez erabiltzea. Badira leku-izen nagusi batzuk, dena den, frantseseko grafiarekin hedatu direnak nazioartean, lurralde hori Frantziaren kolonia izan baitzen, eta, ondorioz, ez dira zuzenean gaur egungo transliterazio-sistematik ateratzen (*Sihanoukville*, *Siem Reap*).

10. KIRGIZERA

10.1 Kirgizeraren idazkera eta erromanizazioa

Kirgizistango hizkuntza ofizialetako bat kirgizera da (estatu-hizkuntza); errusiera da bestea. Kirgizera hizkuntza turkikoa da, eta 4 bat milioi hiztun ditu. 1928 arte arabiar alfabetoz idatzi zen (hala idazten dute gaur egun ere Txinako kirgizek). 1928-1940 bitartean, latindar alfabetoa erabili zen; 1940tik aurrera, alfabeto zirilikoz idazten da. Kirgizeraren alfabeto zirilikoak 36 letra ditu. Haietatik 33 errusieraren alfabetoarenak dira, eta beste hiru letra ditu (**Ң, Ү, Ө**) kirgizeraren berezko fonemetarako.

Kirgizera erromanizatzeko ez dago nazioarteko estandar bakarrik. Erromanizazio-sistema bat baino gehiago dago (BGN/PCGN, ALA/LC, ISO 9), eta Nazio Batuek ez dute onartu sistema ofizialik.

10.2 Euskaraz nola jokatu?

Errusiera transkribatzen den moduan joka daiteke kirgizera transkribatzeko ere ([156. araua: Alfabeto zirilikoz idatzitako izenak euskarara aldatzeko transkripzio-sistema](#)). Kirgizeraren berezko **Ң, Ү** eta **Ө** letrak honela transkriba daitezke, hurrenez hurren: **ng, ü** eta **ö**. Lan espezializatuetan, bestelako transliterazio-sistemak erabil daitezke (ISO 9, adibidez).

11. KOREERA

11.1 Koreeraren idazkera eta erromanizazioa

Koreera Ipar Korea eta Hego Korea estatuetako hizkuntza ofiziala da. Antzina, karaktere txinatar egokituak erabiltzen ziren koreera idazteko (*hanja* karaktereak), baina, XV. mendean, *hangul* (한글) alfabetoa asmatu zen (14 kontsonante eta 10 bokalez osatuta dago). Aristokraziak *hanja* idazkerari eutsi zion luzaz, baina XX. mendean erabat nagusitu zen *hangul* idazkera. Ipar Korean abolituta dago *hanja*. Hego Korean, berriz, *hangul* erabat nagusia bada ere, *hanja* karaktereak eskolan irakasten dira oraindik.

Koreera erromanizatzeko, zenbait sistema daude, baina historikoki garrantzitsuena **McCune-Reischauer** erromanizazio-sistema da (**MR** sistema), George McCune eta Edwin Reischauer estatubatuarrek 1937an sortua. Haren aldaera bat Hego Koreako erromanizazio-sistema ofiziala izan zen 1984tik 2000ra. Ipar Korean, haren beste aldaera bat erabiltzen da oraindik.

McCune-Reischauer erromanizazioa konplexua da, zeinu diakritikoak erabiltzen baititu, eta ez da egokia ordenagailuz idazteko. Horregatik, 2000. urtean, Hego Koreako Kultura Ministerioak, lehengo sistema baztertuta, **koreeraren erromanizazio berritua** izeneko sistema ofizialdu zuen. Sistema hori erabiltzen da gaur egun Hego Koreako bide-seinaleetan, mapetan eta eskola-liburuetan. Abizenak eta enpresa-izenak ez dira aldatu, baina gobernuak sistema berriaren erabilera sustatzen du pertsona-izen eta enpresa-izen berrietan. Erromanizazio berritua ez du zeinu diakritikorik ez apostroforik erabiltzen; alde horretatik, erosoagoa da, eta azkar ari da hedatzen, *hangul* alfabetoaren ahoskera hain ondo islatzen ez badu ere.

Ipar Korean erabiltzen den McCune-Reischauer sistemaren aldaerak ez du apostroforik erabiltzen kontsonante hasperendunak adierazteko; apostrofoaren ordean, h letra erabiltzen du. Adibidez:

Koreako zortzi probintzia historikoetako bat honela idazten da *hangul* alfabetoan: 평안.

Eta honela erromanizatzen da:

- MR sistema: *P'yŏngan*.
- Ipar Koreako MR sistema: *Phyŏngan*.
- Hego Koreako erromanizazio berritua: *Pyeongan*.

Hego Koreako hiriburua (euskaraz, *Seul* arautua) honela idazten da *hangul* alfabetoan: 서울.

Eta honela erromanizatzen da:

- MR sistema: *Sŏul*.
- Hego Koreako erromanizazio berritua: *Seoul*.

11.2 Euskaraz nola jokatu?

Koreerazko leku-izenak euskarazko testuetan erabiltzeko, komeni da, oro har, leku-izenaren estatuan erabiltzen den erromanizazio-sistema ofizialari atxikitzea, hori baita nazioartean dabilen joera orokorra. Ipar Korean, McCune-Reischauer erromanizazio-sistemaren aldaera erabiliko da; Hego Korean, berriz, koreeraren erromanizazio berritua erabiliko da. Diakritikoei dagokienez, idazkera jaso zainduan edo testu espezializatuetan, beharrezkoa gerta daiteke diakritikoak erabiltzea, baina maila apalagoko testuetan (komunikabideak, eskola-liburuak, literatura...) onargarria da ez idaztea. Arau honetako zerrendan, euskarazko forman ez dira sartu diakritikoak; adibidez, *Hamhung* ageri da. Jatorrizko izenen zutabeetan, berriz, sartu dira; adibidez, *Hamhŭng* ageri da. Nolanahi ere, nahi izanez gero, zilegi da noski euskaraz ere diakritikoak erabiltzea.

12. LAOSERA

12.1 Laoseraren idazkera eta erromanizazioa

Laoserak berezko alfabetoa du, XIV. mendekoa, 27 kontsonantez eta bokal ugariz osatua. Bokalak diakritiko bidez adierazten dira, eta kontsonanteen gainean, azpian, eskuinean edo

ezkerrean ager daitezke. Tonuak ere diakritiko bidez adierazten dira. Laosera latindar alfabetoaren bidez idazteko sistema bat baino gehiago dago, baina frantsesek XX. mendearen lehen erdialdean garatutako sistemaren aldaerak dira erabilienak. Hedatuena Estatu Batuetako eta Erresuma Batuko geografia-izenez arduratzen diren erakundeek (BGN eta PCGN) 1966an elkarrekin onartu zuten transkripzio-sistema da, Laosko Commission Nationale de Toponymie delako erakundeak lehenagotik erabiltzen zuen sisteman oinarritua. Sistema horrek diakritikoak erabiltzen ditu bokaletan, baina, frantses hizkuntzan oinarritua dagoenez, frantsesaren hiru diakritiko baino ez ditu baliatzen: <´>, <`>, eta <^>.

Bestalde, gaur egun, Laosen ez dago laosera erromanizatzeko sistema ofizialik, eta Nazio Batuek ere ez dute sistema ofizialik.

12.2 Euskaraz nola jokatu?

Laosera leku-izenak euskarazko testuetan erabiltzeko, oro har, komeni da erromanizazio-sistema hedatuenari atxikitzea. Diakritikoei dagokienez, idazkera jaso zainduan komeni da diakritikoak erabiltzea, baina maila apalagoko testuetan onargarria da diakritikoak ez erabiltzea. Badira leku-izen nagusi batzuk, dena den, frantseseko grafiarekin hedatu direnak nazioartean, lurralde hori Frantziaren kolonia izan baitzen, eta, ondorioz, ez dira zuzenean gaur egungo transliterazio-sistematik ateratzen (adibidez, *Luang Prabang*).

13. MALAYSIERA

Malaysiera latindar alfabetoz idazten da, eta ez du diakritikorik erabiltzen. Beraz, Malaysiako leku-izenak malaysieraz bezala idaztekoak dira euskaraz, salbuespenak salbuespen.

14. MONGOLIERA

14.1 Mongolieraren idazkera eta erromanizazioa

Gaur egun, eta 1940ko hamarkadaz geroztik, mongoliera alfabeto zirilikoz idazten da Mongolian. Barne Mongolian (Txinan), dena den, mongolieraren alfabeto zaharra erabiltzen da. Mongolia estatuan erabiltzen den alfabetoa errusieraren alfabeto ziriliko bera da, baina errusierak ez dituen bi letra gehiago ditu (guztira, 35 letra ditu): **Өө** eta **Үү**. Letra horiek, hurrenez hurren, **ö** eta **ü** idatz daitezke latindar alfabetora transkribatzean. Mongolian erromanizazio estandar bat onartu da 2012an (MNS 5217:2012), eta badira transkripzio-sistema gehiago, hala nola ISO 9 eta Estatu Batuetako Kongresuaren Liburutegiaren sistema.

14.2 Euskaraz nola jokatu?

Oraingoz, errusiera alfabeto zirilikotik latindar alfabetora aldatzeko erabiltzen den transkripzio-sistema bera erabil daiteke ([156. araua: Alfabeto zirilikoz idatzitako izenak euskarara aldatzeko transkripzio-sistema](#)), salbuespenak salbuespen.

15. NEPALERA

Nepalgo hizkuntza ofiziala nepalera da. Devanagari alfabetoz idazten da, hindia eta sanskritoaz bezala, eta haiek bezala erromanizatzen (ikus eranskin honetako **Indiako hizkuntzak** atala).

16. PAKISTANGO HIZKUNTZAK

16.1 Pakistango hizkuntzak eta alfabetoak

Pakistanen 60 hizkuntzatik gora mintzo dira, baina urdua da hizkuntza nazionala eta *lingua franca*, eta pakistandarrek % 75ek hitz egiten dute. Ingelesa ere hizkuntza ofiziala da. Probintzia-hizkuntzak ere badira, probintzia bakoitzean nagusi direnak (punjabera, sindhia, balutxia, paxtuera). Urduaren alfabetoa persiar alfabetoaren aldaera hedatu bat da (eta persierarena, berez, arabiar alfabetoaren aldaera hedatu bat da). Devanagari alfabetoz ere idatz daiteke urdua, eta latindar alfabetoz ere gero eta gehiago idazten da, batez ere gazteen artean. Urdua erromanizatzeko zenbait transliterazio- eta transkripzio-sistema daude.

16.2 Euskaraz nola jokatu?

Pakistango leku-izenak euskarazko testuetan erabiltzean, komeni da nazioarteko joera nagusiari atxikitzea: ingelesaren bidez zabaldu dira Pakistango leku-izenak mundu osora. Diakritikoei dagokienez, idazkera jaso zainduan edo testu espezializatuetan, beharrezkoa gerta daiteke diakritikoak erabiltzea, baina maila apalagoko testuetan (komunikabideak, eskola-liburuak, literatura...) onargarria da ez idaztea. Arau honetako zerrendan, euskarazko forman ez dira sartu diakritikoak; adibidez, *Rawalpindi* ageri da. Jatorrizko izenen zutabean, berriz, sartu dira; adibidez, *Rāwalpindī* ageri da. Hala ere, nahi izanez gero, zilegi da noski euskaraz ere diakritikoak erabiltzea.

17. PERSIERA

17.1 Persieraren idazkera eta erromanizazioa

Persiera hizkuntza indoeuroparren familiarri dagokio, eta 110 milioi hitzun inguru ditu. Persiera modernoak hiru aldaera edo dialekto nagusi ditu:

- Mendebaldeko persiera edo farsia (فارسی) (transliteratua: *fārsi*). Iranen hitz egiten da nagusiki. Arabiar alfabetoz idazten da.
- Ekialdeko persiera edo daria (دري) (transliteratua: *dari*). Afganistango bi hizkuntza ofizialeko bat da. Arabiar alfabetoz idazten da.
- Tajikera (тоҷикӣ / تاجیکی) (transliteratua: *tojiki*). Tajikistanen eta Uzbekistanen hitz egiten da, eta alfabeto zirilikoz idazten da.

Nagusiki, arabiar alfabetoz idazten da. Persiera idazteko, arabierak ez dituen lau letra gehiago erabiltzen dira —پ، چ، ژ eta گ—, eta bi letraren forma aldatzen da —arabieraz: ك eta ي/ي; persieraz: ک eta ی—. Horregatik, persieraren alfabetoari perso-arabiar alfabeto deritzo. Persierak ez du zerikusirik arabierarekin, ez fonologian, ezta gramatikan ere. Eta arabiera idazteko erabiltzen diren zeinu diakritikoak erabiltzen dira persiera idazteko ere, baina

ahoskera, batzuetan, desberdina da. Ondorioz, arabiera erromanizatzeko transkripzio-sistemek, besterik gabe, ez dute balio persiera erromanizatzeko. Arabiera erromanizatzeko transliterazio-sistemak, berriz, oinarritzat erabili ohi dira persiera erromanizatzeko

Persiera latindar alfabetoz idazteko, transliterazio- eta transkripzio-sistema bat baino gehiago dago.

Ingelesez, adibidez, BGN (United States Board on Geographic Names) eta PCGN (Permanent Committee on Geographical Names for British Official Use) erakunde ofizialek persierarako transliterazio-sistema bat onartu zuten 1957an; bestalde ALA eta LC erakundeek (American Library Association eta Library of Congress) beste estandar bat onartu zuten 1997an.

Bestalde, Nazio Batuek 1967an estandar bat onartu eta aholkatu zuten leku-izenetarako, Iranek 1966an onartu zuen sistema ofizialean oinarritua (ingelesezko bertsioa 1966ko irailean argitaratu zen: *Transliteration of Farsi Geographic Names to Latin Alphabet*), eta sistema hori erabiltzen da Irango kartografian, baita nazioarteko zenbait produktu kartografikotan ere.

Beste transliterazio-estandar bat ISOrena da: ISO 233-3:1999 sistema. Eta badira sistema gehiago, hala nola DMG (Deutsche Morgenländische Gesellschaft), Alemaniako DIN 31 635 arauari dagokiona. Eta *The Encyclopaedia of Islam* obra entzutetsuak ere badu bere estandarra.

Horiek guztiak transliterazio-sistemak dira, eta zeinu diakritiko ugari erabiltzen dituzte. Azkenik, transkripzio-sistemen artean aipatzekoa da UniPers sistema (Universal Persian). Latindar alfabetoaren letrak eta hiru letra berezi (Â/â, Š/š, Ž/ž) erabiltzen ditu, eta persieraren hotsak adierazteko diseinatuta dago.

Erabilera espezializatutik kanpo, sistema horien sinplifikazioak erabili ohi dira, zeinu diakritikoak erabiltzen ez dituztenak.

17.2 Euskaraz nola jokatu?

Euskaraz ere komeni da inguruko hizkuntzetan bezala jokatzeko, hau da, transkripzio sinplifikatuak erabiltzea goi-mailako testu espezializatuen eremutik kanpo, hala nola komunikabideetan, literaturan, dibulgazio-lanetan eta ohiko eskola-liburu eta atlasetan. Horiek horrela, arabiera transkribatzeko emandako araua kontuan harturik ([165. araua: Arabieraren alfabetoan idatzitako izenak euskarara aldatzeko transkripzio-sistema](#)), haren aldaera bat erabil daiteke persiera euskarara transkribatzeko.

Paragrafo honen ondoko taulan erakusten da persiera euskarara transkribatzeko taula. Hamar zutabe ditu taulak. Ezkerreko lehen zutabeak perso-arabiar alfabetoaren letra erakusten du, eta eskuineko lehen zutabeak euskarara transkribatzeko ordaina. Arabieraren eta persieraren arteko transkripzio-aldeak adierazteko, horiz nabarmenduta ageri diren desberdin transkribatzen direnak. eta morez nabarmendu dira persierak dituen eta arabierak ez dituen letrak.

Persieraren erromanizazioa. Euskararako transkripzio sinplifikatua

Perso-arabiar alfabetoa Kontsonantea	IPA	DMG	UN	ALA-LC	BGN PCGN	ISO 233-3	Arabiera ingelesez (transkripzio sinplifikatua)	Arabiera euskaraz (sinplifikatua) (165. araua)	Persiera euskaraz (sinplifikatua)
ا	[o], [ʔ]	ʾ	—	—	—	—			—
ب	[b]	b	b	b	b	b	b	b	b
پ	[p]	p	p	p	p	p	EZ DAGO	EZ DAGO	p
ت	[t]	t	t	t	t	t	t	t	t
ث	[s]	s	ṯ	s	ṯ	ṯ	th [θ]	th	s
ج	[dʒ]	ǧ	j	j	j	(?)	j	j	j
چ	[tʃ]	č	ch	ch	ch	č	EZ DAGO	EZ DAGO	tx
ح	[h]	ḥ	ḥ	ḥ	ḥ	ḥ	h	h (hasperendua)	h (hasperendua)
خ	[x]	ḫ	kh	kh	kh	ḫ	kh	kh	kh
د	[d]	d	d	d	d	d	d	d	d
ذ	[z]	ẓ	·	ẓ	·	ẓ	dh	dh	z
ر	[r]	r	r	r	r	r	r	r	r
ز	[z]	z	z	z	z	z	z	z	z
ژ	[ʒ]	ž	zh	zh	zh	ž	EZ DAGO	EZ DAGO	zh
س	[s]	s	s	s	s	s	s	s	s
ش	[ʃ]	š	sh	sh	sh	š	sh	x	x
ص	[s]	ṣ	ṣ	ṣ	ṣ	ṣ	s	s	s
ض	[z]	ẓ	ẓ	z	ẓ	ẓ	d	d	z
ط	[t]	ṭ	ṭ	ṭ	ṭ	ṭ	t	t	t
ظ	[z]	ẓ	·	ẓ	ẓ	ẓ	z	z	z
ع	[ʔ]	ʿ	ʿ	ʿ	ʿ	(?)	ʿ	ʿ (aukerakoa da)	ʿ (aukerakoa da)
غ	[ɣ] / [g]	ǧ	gh	gh	gh	ǧ	gh	gh	gh
ف	[f]	f	f	f	f	f	f	f	f
ق	[g] / [ɣ] / [q]	q	q	q	q	q	q/g	q	q
ك (arabieraz, ك)	[k]	k	k	k	k	k	k	k	k
گ	[g]	g	g	g	g	g	EZ DAGO	EZ DAGO	g
ل	[l]	l	l	l	l	l	l	l	l
م	[m]	m	m	m	m	m	m	m	m
ن	[n]	n	n	n	n	n	n	n	n
و	[v] / [u:] / [o] / [ow] / [o:](dariz)	v	v	v	v	v	w [w], [u:]	w / u	v
ه	[h]	h	h	h	h	h	h	h	h
ی	[j] / [i] / [o:] / [e:] (dariz)	y	y	y	y	y	y	y (bokal artean edo bokal aurrean) / i	y (bokal artean edo bokal aurrean) / i

18. SRI LANKAKO HIZKUNTZAK

Sri Lankako hizkuntza ofizialak sinhala eta tamiler dira. Sinhalak bere alfabetoa du (abugida bat da), eta devanagari alfabetoa (hindiaren alfabetoa) erromanizatzeko sistema bera erabil daiteke sinhala erromanizatzeko. Tamilerak ere bere alfabetoa du, eta devanagari erromanizatzeko sistema bera balia daiteke tamiler erromanizatzeko (ikus eranskin honetako **Indiako hizkuntzak** atala).

19. TAJIKERA

19.1 Tajikeraren idazkera eta erromanizazioa

Tajikera persiera modernoaren aldaera bat da, eta 4,5 milioi hiztun ditu, gehienak Tajikistanen eta Uzbekistanen eta Afganistango iparraldean. Alfabeto zirilikoz idazten da gaur egun Tajikistanen eta Uzbekistanen, baina 1930eko hamarkadan latindar alfabetoz idatzi zen, eta perso-arabiar alfabetoz idatzi zen 1920ko hamarkadaren aurretik. Tajikera erromanizatzeko sistema ofizialik ez dago Tajikistanen, eta Nazio Batuek ere ez dute hobetsi inongo sistemarik. Tajikera erromanizatzeko, zenbait sistema daude: BGN/PCGN 1994, ISO 9: 1995, ALA/LC...

19.2 Euskaraz nola jokatu?

Errusiera transkribatzen den moduan joka daiteke tajikera transkribatzeko ere ([156. araua: Alfabeto zirilikoz idatzitako izenak euskarara aldatzeko transkripzio-sistema](#)). Tajikerak dituen eta errusierak ez dituen **Ғ, Ў, Қ, Ү, Х** eta **Ҷ** letrak (grafema hauek dagozkie, hurrenez hurren: **ʁ/, /ij/, /q/, /ø/, /h/** eta **/dʒ/**) honela transkriba daitezke, hurrenez hurren: **gh, i, q, u, h** eta **j**. Lan espezializatueta, bestelako transliterazio-sistemak erabil daitezke (ISO 9, adibidez).

20. THAIERA

20.1 Thaileraren idazkera eta erromanizazioa

Thaileraren alfabetoa khmereraren alfabetotik eratorri zen XIII. mendean. 44 kontsonante ditu, 15 bokal eta 4 tonu-zeinu. Kontsonanteak ezkerretik eskuinera idazten dira, eta bokalak kontsonanteen gainean, azpian, eskuinean edo ezkerrean ager daitezke.

Hitzak bata bestearen ondoren idazten dira maiz, hitzen arteko tarterik gabe, eta horrek zaildu egiten du erromanizazioa. Thaiandiako gobernuak badu transkripzio-sistema ofizial bat: การถอดอักษรไทยเป็นอักษรโรมันแบบถ่ายเสียง. Thaileraren Transkripzioaren Errege Sistema Orokorra (ingelesez: RTGS, Royal Thai General System of Transcription). Nazio Batuen Erakundeak 1967an onartu zuen sistema hori. 2000. urtean, Thaiandiako gobernuak berrikusi, eta aldaketa batzuk egin zituen. Eta 2002an sistemaren aldaketa horiek onartu zituen Nazio Batuen Erakundeak. Transkripzio-sistema horrek sinplifikazio ugari ditu: ez du diakritikorik erabiltzen, eta latindar alfabetoaren ohiko letrak besterik ez du baliatzen. Bokalak, bestalde, ahoskatzen diren sekuentzian idazten ditu, eta ez thaileraren ortografian bezala. Halaber, thaileraren ortografian idazten ez diren baina ahoskatzen diren bokalak idatzi egiten ditu. Sistema, jakina, ez da itzulgarria.

Badago transliterazio-estandar bat, 1988an onartua: ISO 11940. Diakritikoak erabiltzen ditu, eta itzulgarria da. Nolanahi ere, sistema hori ez da inon erabiltzen, goi-mailako testu espezializatuetatik kanpo.

20.2 Euskaraz nola jokatu?

Thaierazko leku-izenak euskarazko testuetan erabiltzeko, oro har, Thaiandiako transkripzio-sistema ofiziala (edo Nazio Batuen sistema ofiziala, gauza bera baita) erabiliko da ohiko testuetan.

21. TURKMENERA

